



Irakurtzen hasi, norbera hazi 2



Familia irakurtzalearentzako orientabideak





Testua
Lucia Isabel Coloma Calahorra
Kordinazioa
Curriculum Diseinurako Bulegoa
Argitaratzailea
Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua

Marrazkiak
AsIs Bastida
Moldiztegia
Arc Space Grafic, S.L.
L.G.

NA - 2.062/2005
I.S.B.N.
84-235-2795-6



Familia maiteak:

Aurreko urteetan bezala, aurten ere bultzatu nahi zaituztegu ikastetxeari laguntzera zuen seme-alabengan irakurri eta idazteko afizioa sortzen. Garrantzi handia du gaitasun horiek txiki-txikitatik garatzeak, gainerako ikaskizunak txertatzeko oinarria baitira.

Gogo onez hartu izan dituzue orain arteko kanpaina guztiak. Ozenki irakurri diezue (Ozenki), liburutegira joan zarete haurrekin (Eskutik) eta historia txikiak idatzi dituzue haiekin (Lapitza zorroztu).

Orain, berriz, proposatzen dizuegu nola aprobetxatu eguneroko bigitzaren egoerak zuen seme-alabekin batera irakurri eta idazteko, eta nola animatu haurrak etxean irakurtzera.

Ahal baduzue, zatozte, mesedez, ikastetxeko bileretara. Bertan Ikastetxeko Irakurketa Planaren berri emanen dizuegu: ikasturte honetarako helburuak eta ekintzak; eta tutoreak esanen dizue nola laguntzen ahal diozuen Ikastetxeari zuen seme-alabak irakurle onak izan daitezen eta irakurtzearekin goza dezaten.

Begirunez,
zuzendaritza taldea



Gure seme-alabak ttikiak zirenean, hitz egiten genien, eta guri hitz egitera bultza egiten.

Modu berean laguntzen ahal diegu irakurtzen eta idazten ikasteko bidean.

Horretarako, eguneroko bizitzako egoerak aprobetxatuko ditugu, egoera horietako askotan irakurtzea eta idaztea erabiltzen baitira, eta haietan parte hartu dezaten bultzatuko ditugu haurrak.

Haurra zirriborroak egiten hasiko da; horiek dira idaztearen lehen saiok. Ondoren letraren batzuk ikasi eta denbora joan ahala lotura egingen du letren eta dagokien soinuaren artean. Azkenik txukun eta ulergarri idazten ikasiko du.

Eta irakurtzearekin gauza bera: haurrek lehenbizi testuak irudietatik bereiziko dituzte; ondoren, joanen dira letrak ezagutuz eta gero hitz osoak: beren izena, maizenik hartzen dituzten produktuen markak, ezagutzen dituzten kartelak, irakurtzen dizkiegun ipuinen tituluak... harik eta edozein testuren edukia deskodetu eta ulertzeko gauza izan arte.

Oharra: gorde itzazue haurren txikitako idazkiak eta irakurraldien grabazioak, haurrek ikus dezaten zer aurrerabide egin duten: gehiago ikasteko bultzagarri eta gerorako oroigarri eder izanen zaie.

Garrantzi handia du irakurtze egoerak benetakoak, maizkoak, askotarikoak izan daitezzen, eta helburu argia izan dezaten.

Seme-alabei testu bat irakurri behar diegunean, modu baino gehiagotara egingen dugu: batzuetan utziko diegu beraiei esaten zer uste duten testuak esaten duela; beste batzuetan gerok irakurriko diegu. Batzuetan esplikatuko diegu zergatik irakurtzen den horrela, eta beste batzuetan ez. Testuak ere askotarikoak izanen dira (kaleko letreroak, ipuinak, egunkaria, eta abar), eta letra mota diferenteekin (maiuskulak, minuskulak eta abar).




Idazterakoan, batzuetan utziko diegu idazten berek behar duela uste duten moduan, eta beste batzuetan, berriz, esanen diegu zer letra behar diren jarri: ikasgarri ona da, halaber, guk idazten dieguna haiek kopiatzea.

Idazteko tresna bat baino gehiago erabiliko ditugu: lapitza, klariona, boligrafoa, errotuladorea, ordenadorea, letra mugikorak (ebakitakoak, plastikozkoak, imandunak eta abar), eta folioak, libretak, arbelak, paper pusketak, agendak, ordenadorea eta aldian aldian gehien komeni dena hartuko dugu euskarritako.



Ordoren, eguneroko bizitzan gertatzen diren zenbait irakurketa-egoera aurkezten dira. Familian irakurtzeko eta idazteko ohitura sustatzeko balioko digute. Haurrei lagunduko ere diete hizkuntza idatzia geroz eta hobeki erabiltzen eta irakurri eta idazteko afizioa hartzen.







Irakurri non gauden jakiteko

Kalera ateratzen garen aldiro, makina bat egoera sortzen zaizkigu irakurtzea beharrezkoa denak: joan nahi dugun tokia aurkitzeko, eraikinei eta saltokiei zein diren antz emateko, ordutegia eta gertakizunak zein diren ikasteko, nola jokatu behar dugun jakiteko eta abar.

Egokiera ederra da hurrekin batera gure kale, eraikin eta kale altxarietako kartelak, seinaleak, errotuluak, panelak, plakak, planoak, iragarkiak eta abar interpretatzeko.



2

Irakurri eta idatzi bidaietarako

Bidaia bat egin behar badugu, bidaia antolatzeko lana eta orientazio eta oroitzapen lana ere geure seme-alabekin partekatzen ahal ditugu. Konparazio:

- ▶ Errepide mapetan, atlasetan, bidai liburuetan eta abarretan bilatu bisitatu edo pasatu behar ditugun tokiak.
- ◀ Erabiliko ditugun garraio-bideen orduak eta ibilbideak bilatu.
- ▶ Planoak eta kale-planoak interpretatu non gauden jakin, kale bat bilatu edo ibilbide bat antolatu behar dugunean.
- ▶ Nora goazen edo non gauden esaten diguten kartelak eta seinaleak irakurri.
- ▶ Bisitatu behar ditugun tokien gaineko informazioa bilatu: ikusgarriak, arte lanak, folklorea eta abar. Seme-alabei adierazi non eta nola bila dezakegun informazioa (liburuak, entziklopediak, bidai liburuak, ikuskizun kartelak, katalogoak, aldizkariak, internet, eta abar).
- ◀ Kartak edo postalak idatzi etxekoei, adiskideei, edo eskolari, bidaian ateratzen garen bakoitzean.
- ▶ Bidai liburu bat idatzi bidaia honetatik gogoan gorde nahi duguna jasotzeko: iruzkinak, museo sarrerak, postalak, argazkiak, marrazkiak eta abar.

3

Irakurri eta idatzi komunikatzeko

Askotan, **komunikatzeko** behar izaten dugu irakurri edo idatzi. Konparazio:

- ▶ Karta-trukea egin dezakegu etxekoekin edo adiskideekin. Horretara kartak idatzi eta irakurri beharko ditugu, norentzat diren ulertu, nork bidali dituen, aldian aldian zer jarri behar den pentsatu, helbidea non jarri behar dugun, agurra non, despedida non, kartaren testua... Hartarako modua izanez gero, posta elektronikoa ere erabili.
- ▶ Oharrak eta mandatuak irakurri eta idatzi.
- ▶ Zorionak bidali etxekoei eta adiskideei (eguberriz, sortegunetan...)
- ▶ Gonbita bat iristen zaigunean, irakurri eta ulertu nork gonbidatzen gaituen, zertara, noiz, non eta abar.





Irakurri eta idatzi erosteko

Erosketan joateak ere aukera asko ematen dizkigu hizkuntza idatzia erabiltzeko, konparazio:

- ▶ Erosi beharreko gauzen zerrenda egin, edo joan behar dugun tokiena, egin beharreko gauzak, denden izenak eta abar.
- ◀ Propaganda orriketan iragartzen diren produktuen izenak irakurri, haien markak, prezioak, eta pentsatu zein erosi behar ditugun.
- ▶ Erosketa egin bitartean, aldian behin zerrenda irakurri zer falta den ikusteko edo erosi duguna ezabatzeko.
- ▶ Produktuen prezioei, errotuluei, atalei eta etiketei erreparatu, geure marka faboritoei eta abar.
- ◀ Utzi seme-alabei frutak eta berdurak pisatzen, autozerbitzua dagoen tokietan.
- ▶ Erosketa bukatuta, begiratu ongi tiketa, zerrendako produktuek eta erosi ditugunek bat egiten ote duten ikusteko.
- ▶ Arropa edo zapatak erosten ditugunean, begiratu etiketetako datuak: taila, modeloa, osaera eta abar.
- ▶ Hipermerkatura, saltokietara edo liburu dendetara joan-bidenabar, geldialdi bat egin haurrentzako liburu sailean: ikusi zer dagoen argitaratua, gainetik irakurri eta aldian behin bat erosi. Noiz edo noiz liburu bat sartu oparitako.



Irakurri eta idatzi jateko

Janaria ere aitzakia ederra da irakurri eta idazteko. Konparazio batera:


- Asteko, eguneko, eta abarreko menuak planifikatu eta idatzi.
- Etxean irakurri eskolako jantokiaren menuak.
- Produktuen etiketak, ontziak eta orrikkak irakurri eta ulertu: galtze data, marka, osagaiak..., ezagutu behar dugun informazioaren bila.
- Taberna edo jatetxe batera joaten garenean, platerak eta edariak irakur ditzakegu menuan edo kartan.
- ⚡ Jatetxetara jostatu, eta anota dezatela zer hartu behar dugun.
- ⚡ Gogoratu nahi dugun plateren baten errezeta apuntatu, nola egiten den arduraz idatziz.
- Errezeta bat hautatu eta irakurri zer osagai eta zer tresna behar diren egiteko, pentsatu zeintzuk baditugun eta zeintzuk erosi behar ditugun. Idatzi erosketako zerrenda, haiekin eroatera atera eta, jarraibideak irakurritz, errezeta prestatu.
- ⚡ Esplikatu haurrei zer liburutuan eta aldizkaritan egoten diren errezetak eta erakutsi errezetako zer partetan ageri diren osagaiak, zeinetan prozedura, eta abar.



Irakurri eta idatzi oroitze

Maiz asko **gogoratzeko edo ez ahazteko** idazten edo irakurtzen dugu. Horretarako:

- ▶ Agendan edo egutegian apuntatu gogoratu behar diren familiako ospakizunak: urte-egunak, zitak, bidaiak, jarduerak eta abar.
- ▶ Agenda batean apuntatu adiskide eta etxekoen helbideak eta telefonoak.
- ▶ Kajak, karpetak, poteak, apalak eta abar etiketatu, zer daukaten jakiteko.
- ▶ Gogoratu nahi ditugun gauzak idatzi: animalien izenak, ipuinen tituluak, pertsonaiak, bisitatu ditugun hiriak, osagaiak, gonbidatuak, bidaiak bat prestatzeko behar duguna eta abar.
- ▶ Argazki liburuetan argazki bati datuak edo iruzkinak erantsi: non hartu genuen, noiz, anekdotaren bat eta abar.





Informazioa bilatzeko irakurri eta idatzi

Askotan **gai jakin baten gaineko datu** bat edo informazio bat aurkitu beharrea gertatzen gara, dela eguneroko bizitzan behartzen garelako, dela seme-alabei etxeko lan batean lagundu behar diegulako. Ona da seme-alabei erakustea bilaketa hori nola egiten den:

- ▶ Hitzegia nola erabiltzen den hitz baten esangura biltzeko. Esplikatu diegu nola hitzak ordena alfabetikoan dauden, zer esan nahi duten hitz bakoitzean ageri diren laburdurek, eta abar.
- ▶ Era berean, erakusten ahal diegu nola erabili entziklopedia bat datuak edo jakingaiak bilatzeko.
- ▶ Esplikatu diegu nola antolatua dagoen liburutegi publikoa, eta bai gure etxekoa ere, haiek bilatu ditzaten bertan CD-ROMak, liburuak, aldizkariak, bideoak eta abar, bila gabiltzan informazioa eduki dezaketenak.
- ▶ Liburu bat hautatu badugu, aurkibidea erabiliz bilatu zer orrialdetan dagoen gure intereseko pasartea. Esplikatu nola ari den aurkibidea.
- ▶ Aukera badugu, Interneten bilatuko dugu eta nola egiten dugun esplikatu: bilatzaile batean nola egiten den bilaketa, nola joaten garen gomendatu diguten edo lehendik ezagutzen genuen orrialde batera eta nola gordetzen den informazioa disko batean grabatuta edo paperean inprimatuta.



Irakurri eta idatzi gaurko gertaeren berri jakiteko

Interesgarria izan daiteke **inguruan gertatzen denaren berri jakiteko irrika** piztea seme-alabengan, hartarako egunkariak, aldizkariak, kartelerak eta abar erabiliz. Adibidez:

- Egunkarian harritu gaituen berri bateko titularra irakurri. Zatiren bat irakurri edo argazkiaren oina eta abar.
- ⚡ Egunkariko zein aldizkari bateko atal batean, egingo duen eguraldiari buruzko informazioa irakurri, edo telebistako programazioari buruzkoa, interesgarri zaien gai bati buruzkoa, kultur gertakizunei buruzkoa eta abar.
- Egun edo aste bat baino gehiagoz luzatzen den berri baten garapena segitzea egunkarian.
- ⚡ Gertaera eta ikuskizunen kartelak interpretatzea (zinea, arbolaren eguna, bestetako programa eta abar).





Irakurri eta idatzi jostatzeko

Hizkuntza idatzia **jostatzeko** ere erabil daiteke. Adibidez:

- ▶ Letra mugikorrek jostatu:
 - Hitzak, tituluak eta abar konposatu.
 - Letra jakin batzuekin ahalik eta hitz gehien idatzi.
 - Ikusi nola aldatzen den hitz bat letra baten ordean beste bat jartzen bada edo letra bat tokiz aldatzen bada.
 - Halako letraz hasten diren hitzak osatu.

Letrak ongi trazatzeko oraindik gai izan ez baina letrei ongi antz ematen dietenean, plastikozko letra imandunak erabili ditzakegu, arbeletan eranstekoak, edo paperezko letrak ebaki, haiekin jostatzeko. Komeni da letrak tamaina eta mota askotakoak izatea (maiuskulak, minuskulak eta abar).
- ▶ Koaderno berezi bat erosi hurrek ipuinak, komikiak, kankak, poesiak, igarkizunak eta abar asmatu edo berridazteko...
- ▶ Hizkuntza jostetak planteatu, ahoz nahiz idatziz: ikusi-makusi, gizon urkatua, gurutzegramak, aho-korapiloak, letra zopak eta abar.
- ▶ Kasete batean ipuin baten irakurraldia grabatu, gero grabazioa aditu eta begiekin ipuin baten testu idatzia segitzeko. Gauza bera egin daiteke kantekin, poemekin, hitz segidekin, txisteekin, igarkizunekin eta abar.
- ▶ Joko berri baten jarraibideak irakurtzea arauak ikasteko edo joko horretako piezak nola montatu jakiteko. Kajan heldu den informazioa interpretatzea: adina, jokalaria kopurua, izena, marka, jokoaaren laburpena eta abar.



Irakurri eta idatzi dibertitzeko

Lehengo jardueren helburua da haurrak bultzatzea irakurtzen eta idazten ikasteko interesa hartzera. Baina, dudarik gabe, familiak egin dezakeen aportaziorik handiena, seme-alabengan **irakurtzeko zaletasuna sustatzea da**. Hartarako, adibidez:

- ▶ Haiekin batera antola dezakegu etxeko liburutegia, edo haiek beren gelan daukatena, irizpide bat baino gehiagoren arabera ordenatuz: ipuinak, bilduma berekoak, ikasliburuak eta abar.
- ▶ Udaleko liburutegian bazkide egitea eta maiz joatea bertara irakurraldi bat egitera edo liburuak, bideoak edo CD-ROMak hartzera. Haurrentzako liburuen arduradunak aholku emanen digu liburu gomendagarrien edo nobedadeen gainean.
- ▶ Ikasgelako beste neska-mutilekin, adiskideekin edo ahaideekin liburuak trukatzera bultzatu. Horrela, bidenabar, irudipenak eta irakurritakoen gaineko balorazioak trukatzera bultzatzen dugu.



...jarraipena

- ▶ Haien aurrean irakurtzea. Ikus dezatela gu ere irakurzaleak gara eta edozein momentu bilatzen dugula irakurtzeko (eleberriak, egunkaria, kartak...). Irakurtzen ari garenen gainean mintzatu, gustatzen zaiguna, harrigarri zaiguna, gehien gustatzen zaizkigun ilustratzaileak eta abar aipatuz.
- ▶ Haurrei ozenki irakurri behar zaie, horrela egoki irakurtzen ikasiko baitute (intonazioa, bozaren inflexioak, etenak eta abar...).

Egunero haiekin ipuin bat, kontaera bat, poema bat irakurri... lotara baino lehen edo ohean daudela. Edozein momentu ona da, baina gauean giro oso berezia egoten da, liburuen mundu magikoan sartzeko lagungarri izaten dena. Momentu berezi horretan aita edo ama haurrekin afektiboki lotzen dira liburuaren bitartez. Momentu hori eritual bihurtu behar da, eguneroko presaz eta laster-beharraz kanpo, eta haurrek irakurtzen ikasi ondoren ere eutsi behar zaio.

Ahal dela, utziezu haurrei denbora tutoreak agintzen dizkien liburuak irakurtzeko, hark familiekiko bileretan ezartzen dituen irizpide eta orientazioen arabera.



orri.	Irakurri eta idatzi
06	non gauden jakiteko
07	bidaietarako
08	komunikatzeko
09	erosteko
10	jateko
11	gogoratzeko
12	informazioa bilatzeko
13	gaurko gertaeren berri jakiteko
14	jostatzeko
15	dibertitzeko

